



COMPOSICION PREMIADA CON **MEDALLA DE ORO** EN LOS JUEGOS  
FLORALES DE LA «EUSKAL-ERRIA» DE BILBAO.

Milla kolore dituen ibar parretsu baten erdian  
Jaunak paratu zuen ARITZ bat lur sendo eta gurian  
Euskaldun dénok bizi gintezen doatsu bere azpian.

Murmur egiñaz aldamenean zeukazkien iturriak:  
Lore politez apaindurikan bidechigor ta zelaiak;  
Baso ichiaz egi, mendiska..... bere inguru guziak.

Urtartetikan agiri ziran pichiloreak ugari  
Eskeintzen euren ezti gozoa erle beargilleari,  
Errechinolak oian zokoan gau eta egun kantari.

Egunsentian agertutzen zan eguzki zoragarria  
Erakutsiaz bere aurpegi urrezko distiaria,  
Eta arratsean ezkutatutzen zuen goisoro argia.

Illargi eder zillarrezkoa irtetzen zan sortaldetik;  
Ikusten ziran goi urdinpean argiontziak zinzillik,  
Arkitzen lore usai gozozko churiak intzez beterik.

¡Zeñen garbia, ikusgarria zeru azpia zegoen  
Aize biguña eta preskura zituelarik eskeintzen!  
¡Zeñen gozoro ARITZ orriak ziran pir-pir-pir mugitzen!

Izate danok Jaungoikoari ematen zion eskerrak  
Ikusirikan egun eta arrats aifñ eguraldi ederrak;  
Sarjin loretsu bat ziruriten ibar artako bazterrak.

Baña agertu zan zikintasun bat zeru-lurraren tartean,  
Bi odei lodi, oso illunak, bata besteren aurrean,  
¡Zorigaiztoro! alkarren indar gogorrak neurtu naiean!

Nastu ziraden, sortu zituzten ujolde izugarriak,  
Turmoi, chimista, aize chistuak, porroka naian mendiak,  
Euren lekutik irten nai zuten koajetsuzko ibaiak.

Itsas genasi orrularia zebillan orruarekin  
Zelai igarrak berdindu naian belar soro ezeakin;  
Lur larrutuak baso ichi ta mintegi orritsuakin.

Alper alperrik egin zituen alegiñik aundienak  
Irago naian, chit setatsuro, arrokarik bikañenak,  
Muga oriek para zizkion gauza danen Jabe danak.

Arretu ziran iturri garbi kristalaren gisakoak;  
Oso mastrika udaberriko lore arantz gabekoak;  
Erori arte tantai lodiak zenbat gizaldetakoak.

Ala ere ¡ai! zatitu arren ARTZ zarrari adarrak,  
Eraman arren zituen orri guziak ekaitz gogorrek,  
Iheki zion ¡milla aingerua! portizki gerri azkarrak.

Baña arkiturik bakardadean sentitu zuen ikara,  
Eta aji egin, ¡Jainko aundia! nere umeak ¿non dira?  
¿Bakar bakarrik utzitzen naute umezurtz baten gisara?

¿Nere itzalik ez al du bear geiago Euskal-erriak?  
¿Ez ote ditu maite izkuntza eta oitura garbiak,  
Egoki nere biotz barrenen Jaungoikoak ipiñiak?

¿Ez ninduen ni, aren almenak bere antzera paratu,  
Esanaz:—mendi orietatik iñork botako etzaitu,  
Etsaiak baldin zure semeak berezitzen ezpaditu?—

Kartagotarrak, Erromatarrak, Godoak eta Mairuak,  
¿Etziran izan Gurutzeaz ta Nitaz beti garaituak,  
Kendu izan nai zituztenean nere adar orritsuak?

¿Ez al-zituzten nere aurrean makurtu beren kopetak,  
Jendecheak ta aundimandiak, beartsu ta dirudunak,  
Errege aundi, jaun almentsuak, eta gañera umantak?

Eta zer, ¿ekaitz iragokorrak orain izutzen zaituzte?  
Amoriorik nereganaiko sentitutzen ez dezute?  
¿Oztu al-dira zuen biotzak? sinispenik ez al-dute?

Eta mendiak eranzun zuten ¡ai zer estadu tristea!  
Ekaitz gaiztoak zaitu, egiaz larrutu ¡Ama maitea!  
Non eta nola dan ori sortu ez goaz gu esatea;

Baizikan egi miñ-miñ batzuek garbi nai ditugu esan  
Zure umeak jakin dezaten nola porta bear diran  
Chimistagaia kemear-mugan<sup>1</sup> sortzean berrirrotikan.

(1) Atmosferan.

Zure iturri garbietatik sortu ziraden Legeak  
 Etsaiak ere aitortzen dute, dirala eziñ obeak;  
 ¡Eta ala ere auzora billa seme ajolakabeak!

Amoriozko Ama nai ezik ugazamaren mendean,  
 Losinchkerian dabilta zenbait, beren buruen onean,  
 Ipar aldeko ibar libreak utzita, ego aldean!

Baña ¡oh gauza miragarria oekin gertatzen dana!  
 Arako dute, eztaraziaz<sup>1</sup> eskatzen gure izena,  
 Esanaz:—laster egingo degu ARBOLAREN zoriona;—

Eta, atzapar dondusleakin<sup>2</sup> ari dirade kendutzen  
 Geldi zaiozkan sustar gogorrak; eta ez dira lotsatzen!....  
 Aundinai ero kotizi beltzak ditu orretaratutzen.

Ezkuta bitez galgiro<sup>3</sup> oriek lau Probintzi oetatik,  
 Eziñ aserik duten gosea gure bizkar gañetatik,  
 Ebro irago beziñ agudo etsaiakin bat egiñik!

Aralarreko Aingeruchoak daki ziradela bildu  
 Seme zintzoak mendi artanche, eta zutela akordatu,  
 Amari bear zizkiotela jazkai ederrak ornitu,

Oju egiñaz ¡¡zoaz emendik *alkar eziñ ikusia!*!  
 Zu zera ARBOLA zulatu duen pipi zital galgarria,  
 Amaren bular eta erraiak jan dituen miñ bizia!

Zu nai zaituzte gure artean, betiko, etsai gordeak;  
 Baña ez, alkar artuko dute Aitor zarraren semeak;  
 Egingo dute bilkida<sup>4</sup> Napar Euskaldun Fuero zaleak,

Eta orduan amorio ta libertadezko argiak  
 Kenduko ditu gure gañean arkitzen diran odeiak,  
 Eta botako ARITZ arbolak berriró muskill guriak.

Bildu gaitezen bada guziok ARBOLAREN inguruan,  
 Eta maitatu zeren berdiñik arkitzen ez da munduan,  
 Landatu zuen esku santua dagoelako zeruan.

CLAUDIO OTAEGI-KOAK.

(1) Ironiaz.—(2) Sakrilegozkoak.—(3) Bizioak.—(4) Unioa.